

## PRENTSA-OHARRA


### GUGGENHEIM BILBAO MUSEOAK 905.048 BISITARI IZAN ZITUEN 2009. URTEAN


lazko ekitaldiarekin alderatuz, bertako eta Estatuko bisitari kopuruak 6 puntu egin zuen gora

Guggenheim Bilbao Museoak 905.048 bisitari erakarri zituen 2009. urtean, 2008an baino %4,73 gutxiago. Beherapen arin hori jasan arren, Museoak %100ean bete zituen ekitaldi horretarako aurreikusitako joerak. Beraz, balantzea positibotzat har daiteke egoera ekonomiko desegokia eman zen eta Euskal Autonomia Erkidegora etorritako nazioarteko bisitarien zenbakiak behera nabarmen egin zuen urtean.

Bisitarien jatorri geografikoari dagokionez, 2009ko berritasun gailenena Estatutik etorri ziren bisitari kopuruaren sei puntuko gorakada izan zen: %40, iazko ekitaldiko %34aren aurrean. Era berean, horien artean, nabarmentzekoa da Euskal Autonomia Erkidegotik bertatik etorri ziren bisitari kopuruaren gorakada (%14, 2008an baino lau puntu gehiago eta 2007ko kopuruaren  $-\%6-$  bikoitza baino gehiago).

2009an bisitari atzerritarren artean eman zen beherapena (gutzizko bisitari kopuruaren %60, 2008ko %66aren aurrean), bertako eta Estatuko bisitarien kopuruaren gorakadarekin orekatu zuen Museoak. Hala ere, oso maila altuetan mantendu zen ehunekoa, Museora etorri ziren hiru bisitaritik bi atzerritarrak baitziren. Horien artean, frantsesak izan ziren, aurreko urteetan bezala, Museora gehien etorri zirenak (%19) eta ondoren ingelesak (%7), alemaniarrek (%7), estatubatuarrek (%5) eta italiarrak (%5).





2009ko abenduaren 31 arte, [www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es) web guneak 958.702 bisita izan zituen (2008an baino %21,8 gehiago) eta 4.747.380 orri ikusi ziren (2008an baino %13,9 gehiago).

Joan den ekitaldian, 571.795 pertsonak (2008an baino %20,93 gehiago) parte hartu zuen Guggenheim Bilbao Museoak publiko desberdinentzat (hezitzaileak, haurrak, familiak, gazteak, Lagunak, gizarte-egoera ahuleko taldeak, etab.) antolatzen dituen berrogeita hamar hezkuntza-programetako batean.

Bestalde, Kide Korporatiboen Programa 134 korporaziok osatzen dute egun eta Banakako Kideen Programa hazi egin zen joan den urtean ere bai. Hala, 16.110 Lagunekin, Estatuko mota horretako talde handiena da eta Europako garrantzitsuenetako bat.

2009. urtean Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak EAEko ekonomian izan zuten eragin ekonomikoaren inguruan egindako azterketan, ondorengo alderdiak nabarmendu behar dira:

- 2009an Museoaren jardunak Euskadin sortutako guztizko gastu zuzena 204.506.729 eurokoa izan zen, bisitari bakoitzeko 225,97 euroko batez besteko gastua adieraziz.
- 2009an Guggenheim Bilbao Museoaren jarduerak 185.576.062 euroko aberastasuna sortu zuten BPGan.
- Jarduera ekonomiko honek eraginda, 25.273.604 euroko sarrera gehigarriak izan zituzten Euskal Ogasun Publikoek.
- Jarduera honek 3.695 enplegu mantentzen lagundu zuen.

Azkenik, Guggenheim Bilbao Museoak Europan buruan diren kultura erakundeen artean duen lekua bermatu zuen autofinantzaketa mailari dagokionez, 2008an bezala, %65 ingurukoa izan baitzen, hots, hiru eurotik bi Museoak berak sortu zituen.

## **Informazio gehiagorako:**

Guggenheim Bilbao Museoa  
Komunikazio eta Marketing Zuzendariordetza  
Tf: +34 944 35 90 08  
Faxa: +34 944 35 90 59  
Posta elekt.: [media@guggenheim-bilbao.es](mailto:media@guggenheim-bilbao.es)  
[www.guggenheim-bilbao.es](http://www.guggenheim-bilbao.es)